



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko azaroaren 24a

130. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Tafallako Udalarri buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (6. or.).
- III. Norainokoa (6. or.).
- IV. 2013ko ekitaldiari dagozkion urteroko kontuei buruzko iritzia (7. or.).
 - IV.1. Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra (7. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (7. or.).
 - IV.3. 2013ko abenduaren 31ko egoera finantzarioa (7. or.).

IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (10. or.).

V. 2013ko kontu orokor bateratuaren laburpena (11. or.).

V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (11. or.).

V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (12. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (12. or.).

V.4. Egoera-balantze bateratua (13. or.).

V.5 Galeren eta irabazien kontua (14. or.).

VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (15. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (15. or.).

VI.2. Langileak (16. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (18. or.).

VI.4. Inbertsioak (19. or.).

VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (19. or.).

VI.6. Inbentarioa/Ibilgetu materiala (20. or.).

VI.7. Hirigintza (21. or.).

VI.8. "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." sozietatea (22. or.).

Eranskina. Udalaren 2013ko kontu orokorraren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:


www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, 2014ko ekitaldirako bere jarduera-programari jarraituz, Tafallako Udalaren eta haren menpeko enteen 2013ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Udalerriak 98,3 km² dauzka, eta, 2013ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera, 11.201 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera honako grafiko honetan ikusten da:



Entitate horien datu ekonomiko nagusiak 2013ko ekitaldiaren amaieran honako hauek ziren:

- Administrazioaren Sektore Publikoa: Tafallako Udalak hiru erakunde autonomo ditu zerbitzu publikoak eskaintzeko: Udal Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua. 2013ko abenduaren 31n honako kopuru hauek agertzen dituzte:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2013-12-31n
Udala	9.672.711	10.585.415	155
Udalaren Musika Eskola	468.218	212.878	17
Kultur Patronatua	425.393	37.311	5
Kirol Patronatua	256.736	18.993	12
Guztira	10.823.058	10.854.597	189

Oharra: 2013ko abenduaren 31ko langileen artean, tailer-eskolakoak diren 22 langile daude (2012an, 18 ziren), eta beste 2 gizarte enplegutik heldu direnak (2012an, 14 ziren).

Udalak 2013an bere erakunde autonomoei egin dien ekarpena 881.165 eurokoa izan da (Udal Musika Eskola, 255.340 euro; Kultur Patronatua, 388.082 euro, eta Kirol Patronatua, 237.743 euro).

- Enprezen Sektore Publikoa. 2001ean, Udalak "Ciudad Deportiva Tafalla S.A." (CDTSA) pertsona bakarreko sozietatea eratu zuen kirol-hiria eraiki eta kudeatzeko, eta Udala bera da bertako akziodun bakarra. Ez du langile berekirik, eta lehiaketa publiko bidez esleituta dauzka kirol-

instalazioen kudeaketa eta taberna-kafetegiaren ustiapena. 2013an, datu ekonomiko hauek ditu (eurotan):

Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak, 2013-12-31n
Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.	258.398	540.731	(282.333)	-

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Mairagako Mankomunitatea, zeinaren bidez ematen baititu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua.
- Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatea, gazteen kirol-jarduerak nahiz gizarte eta kulturaren arlokoak egiteko.
- Tafallako eskualdeko gizarte-zerbitzuen Udalarteko Elkartea.

Halaber, Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoan, eskualdeko Eraikinak eta Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoan (ORVE) parte hartzen du.

Udal honek eskaintzen dituen zerbitzu nagusiak hauek dira, zerbitzu horiek eskaintzeko moduaren arabera:

Zerbitzua	Udala	Erakunde	Mankomunitatea	Lagapena	Zerbitzu kontratuak
Administrazio-zerbitzu orokorrak	x				
Udaltzaingoa	x				
Musika eskola		x			
Hirigintza	x				
Ur-hornidura			x		
Hiri hondakinak			x		
Kale garbiketa					x
Udal hilerria	x				
Euskararen udal zerbitzua	x				
Ikastetxeen mantentzea	x				
Ludoteka	x				
Kontsumitzaileen informaziorako zerbitzua	x				
San Sebastián Gizarte Etxea	x				
Gizarte zerbitzuak	x				
Etxeko arreta	x				
Liburutegia		x			
Kultur etxea		x			
Babestutako enplegu soziala	x				
Berdintasuna	x				
Gazteen Etxea	x				
Herritarrentzako Arreta Bulegoa	x				
Errolda	x				
Herritarren parte-hartzea	x				
Diru-bilketa	x				
Diru-bilketa exekutiboa	x				x
Futbol-zelaiak	x	x			
Tafallako kirol-hiria				x	
Ereta kirol-eremua		x			
Zidacos pilotalekua	x				
Patinatzeko pista	x				
Tenis pistak		x			
Musika eskola		x			
Lantegi-eskolak	x				

Toki entitateari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

2013ko ekitaldiko aurrekontua ez da onetsi. Hori dela eta, Udalak ekitaldi horretan aurrekontu luzatuarekin jardun du. 2014ko ekainaren 20ko Osoko Bilkurak 2013ko kontuak onetsi zituen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren kontu orokorrari buruz dugun iritzia. Bosgarrenean, kontu orokorraren laburpena ageri da, Udalaren egoera-orri finantzario nagusiekin. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo. Horrez gainera, "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." sozietatearen kontuei buruzko hainbat iruzkin jasotzen dira.

Halaber, eranskin batean sartu da Udalak 2013ko ekitaldiko kontuekin egindako oroitidazkia.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Tafallako Udaleko eta haren mendeko erakunde autonomoetako langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tafallako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Tafallako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen garrantziko alderdi guztiei dagokienez, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Aplikatzekoa zaion legedia zer neurritan betetzen den Tafallako Udalak eta haren mendeko erakunde autonomoek 2013an aurrera izandako jardueran.

- Tafallako Udalaren eta haren mendeko erakunde autonomoen 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoera zein den.

- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txosten honetan, Udalean eta haren mendeko erakundeetan ezarritako barne kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitatzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

III. NORAINOKOA

Tafallako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak osagai nagusi hauek ditu:

- Entitatearen beraren eta bere erakunde autonomoen kontua (Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua): Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- “Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” udal sozietatearen urteko kontua. Sozietate horren kapital osoa Udalarena da.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), zorraren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Udalaren eta udal sozietatearen balantze bateratua aurkeztu da.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Bartzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarrizko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontroleko alderdi nagusiak.

“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” merkataritza-sozietateari dagokionez, haren urteko kontuez kontu-hartzaileak, finantzaketa kontrolatzeko duen eginkizuna betez, egindako berrikusketa-txostena aztertzea izan da egin dugun lana.

IV. 2013ko EKITALDIARI DAGOZKION URTEROKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoaren arabera, Tafallako Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2013ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardura, baita bere edukiarena ere, Udalarena da, eta txosten honen V. atalean laburbilduta jasota dago.

Gure azterketa-lanetik ondoko iritzia ondorioztatu dugu:

IV.1. UDALAREN 2013ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

- Ondasunen inbentarioa 1993koa da, eta eguneratu gabe dago oraindik; horregatik, ezi-nezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2013ko abenduaren 31n, 39, milioi eurokoa zen.

- Ez daude kuantifikatuta funtzionarioen pentsio-sistemak sorrarazten dituen montepioetako betebeharrak, montepio hori, lanean diharduen langile berririk sartzen ez denez, iraungitze-prozesuan badago ere. Abenduaren 31n, 45 pertsona zeuden pentsioak jasotzen zituztenak eta 17 pertsona jardunean zeudenak.

- Arestian aipatutako salbuespenen ondorioak alde batera utzita, Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarrereren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta egindako eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio jasotzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Egindako lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2013ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

IV.3. 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA FINANTZARIOA

2013ko ekitaldiko aurrekontu bateratua Alkatetzaren 2013ko urtarrilaren 8ko ebazpen batez luzatu zen. Ekitaldian zehar, ez da beste aurrekonturik onetsi.

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 10 milioi euroko gastuak eta 10,3 milioi euroko diru-sarrerak dauzka; kopuru horri 1,7 milioi euro gehitu zaizkio aurrekontu-aldaketaren bitartez. Horrekin guztiaren, behin betiko aurrekontua osatu da: gastuena 11,7 milioi eurokoa eta diru-sararena, berriz, 11,9 milioi eurokoa.

Aitortutako betebeharrak 10,8 milioi eurokoak dira, eta aitortutako eskubideak, berriz, 10,9 milioi eurokoak. Horrek esan nahi du aurrekontu bateratuaren betetze-maila ehuneko 92,9 dela gastuetarako eta ehuneko 90,88koa, berriz, diru-sarreretarako.

Gastuetan, honakoek batez bestekoa baino betetze-maila apalagoa izan dute: inbertsioen kapitulua –ehuneko 87–, transferentzia arruntena –ehuneko 90– eta ondasun eta zerbitzuena eta gastu finantzarioena –ehuneko 84–.

Aitortutako eskubideen kasuan, betetze maila apalagoak honakoei dagozkie: zeharkako zergak (betetzearen % 4), tasak eta prezio publikoak (ehuneko 84) eta finantza-pasiboak (betetzearen ehuneko 62).

Gastuen izaerari begiratu gero, gastu arruntek eta kapital- eta finantza-gastuek gastu guztien ehuneko 85 eta ehuneko 15 egiten dute, hurrenez hurren (2012an, ehuneko 66 eta 34 ziren). Finantza-zama guztizkoaren ehuneko sei da.

Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 91 dira (2012an, ehuneko 75 ziren); diru-sarreraren ehuneko 47 jasotako transferentzietatik heldu dira (2012an, ehuneko 52 ziren). Zorpetze bidezko diru-sarrerak, diru-sarrera guztien ehuneko 3 dira.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera		Finantzabidea	
Langileak	57	Tributu bidezko diru-sarrerak	44
Bestelako gastu arruntak	29	Transferentziak	48
Inbertsioak	8	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	5
Finantza-karga	6	Zorduntzea	3
Guztira	100		100

Hona Udalaren 2013ko ekitaldirako aurrekontuaren betetzeari buruzko adierazleak eta 2012az geroko bilakaera:

	2013	2012	Aldea (%)
Aitortutako betebeharrak, guztira	10.823.058	13.772.386	-21
Likidatutako eskubideak, guztira	10.854.597	13.313.116	-18
Gastuen betetzea (%)	% 92,87	% 85,98	
Diru-sarreraren betetzea (%)	% 90,88	% 83,04	
Ordainketak (%)	% 89,16	% 89,15	
Kobratutakoa (%)	% 93,72	% 90,42	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	9.228.514	9.028.830	2
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	9.126.581	8.883.201	3
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	1.027.380	4.203.117	-76
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	567.165	540.438	5
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	9.908.029	10.019.713	-1
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	4.846.683	5.061.137	-4
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	609.367	2.594.803	-77
Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	337.200	698.600	-52
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	% 47,20	% 52,30	
Zergen bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak	% 52,52	% 56,06	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	261.502	-617.432	-142
Aurrekontu-emaizta doituia	177.636	-12.492	-1522
Aurrezki gordina	781.450	1.136.512	-31
Finantza-zama (3.etik 9.era)	669.098	686.068	-2
Aurrezki garbia	112.352	450.444	-75
Zorpetze maila (%)	% 6,75	% 6,85	
Zorpetze muga (%)	% 7,89	% 11,34	
Zorpetze-ahalmena (%)	% 1,13	% 4,49	
Diruzaintza-gerakina, guztira	9.262	150.665	-94
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	9.262	92.232	-90
Zor bizia	5.216.307	5.446.271	-4
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	% 52,65	% 54,36	
Zor bizia biztanleko	466	484	-4
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	6,68	4,79	

2013an aurreko ekitaldian baino ehuneko 21 (3 milioi euro) gutxiago gastatu ditu Udalak, funtsean, inbertsioko gastuak murriztu direlako; izan ere, azken horiek ehuneko 79 (2,9 milioi) egin dute behera. Bestalde, diru-sarrerak aurreko ekitaldian baino ehuneko 18 txikiagoak izan dira, hau da, 2,5 milioi txikiagoak. Jaitsiera horren arrazoia da inbertsioei lotutako kapital-transferentziek asko egin dutela behera, zeren eta 2012an 2,4 milioikoak izatetik 2013an 0,6 milioikoak izatera pasa baitira; eta inbertsio errealeen besterentzeak ere behera egin du, zeren eta

2012an 0,2 milioi izatetik 2013an 0 milioi izatera pasa baitira. Finantza-pasiboek ere behera egin dute, 2012an 0,7 milioi izatetik 2013an 0,3 milioi izatera.

Izaera arrunteko gastuek ehuneko bi egin dute gora, funtsean gehiago gastatu delako langilerian (ehuneko bi egin dute gora) eta ondasun eta zerbitzuetan (horiek ere ehuneko bi egin dute gora). Diru-sarrera arruntak, berriz, ehuneko bat jaitsi dira, batez ere zeharkako zergek ehuneko 95 behera egin dutelako.

Saldo ez-finantzarioa (diru-sarrerak ken gastu ez-finantzarioak) 0,3 milioi positiboa da; 2012an, ordea, 0,6 milioi negatiboa izan zen.

Aurrekontu-emaiza doitua 177.636 euro positiboa da. Haren balioak 2012koaren aldean gora egin du, urte hartan 12.492 euro negatiboa izan baitzen.

Bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak positiboak izaten jarraitzen dute; izan ere, ehuneko 31 eta 75 egin dute behera, hurrenez hurren.

Zorpetze-maila ehuneko 6,75ekoa da (ehuneko 6,85ekoa 2012an), eta haren muga ehuneko 7,89koa da (2012an, ehuneko 11,34koa); horren ondorioz, zorpetze berri baterako ahalmen ekonomiko pixka bat badu oraindik.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea positiboa izan zen: 9.262 euro (2012an izan zena baino ehuneko 90 gutxiago).

Epe luzerako zor bizia 5,22 milioi eurokoa da (5,44 milioikoa 2012an); zor hori –biztanle bakoitzeko 466 euroraino iristen dena– entitatearen diru-sarrera arruntan ehuneko 53 da, legeak gaur egun zor gehiago egiteko jartzen duen ehuneko 110eko mugatik behera. 2013an lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 6,7 urte beharko lirarteke Udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Azken batean, Udalaren 2013ko ekitaldiko egoera finantzarioak zorpetze-ahalmena eta diruzaintza-gerakin positiboa erakusten ditu, nahiz eta bi magnitude horiek okerragoak diren aurreko ekitaldikoak baino; zorrak diru-sarrera arruntan ehuneko 53 egiten du.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den kalkulatu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean horretarako eman duen gidaz baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	261.502
Doikuntzak	106.325
Finantzatzeko ahalmena	367.829

Horrenbestez, ikusi da Tafallako Udalak aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak betetzen dituela, bai eta gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2012an, ehuneko 1,7 egin zuen gora); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta zorra ezarritako mugatik beherakoa baita.

Fiskalizazioaren iritzia ezertan ukitu gabe, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu egungo krisi ekonomikoko arriskuen ondorioz dagoen egoera, egoera horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Egoera honetan, hain zuzen, honakoek izan behar dute oinarritzko premisa, herritarren oinarritzko premiei erantzunen dien kudeaketa publiko bat izateko: aurrekontuen plangintza egiterakoan eta haiek betetzerakoan zorrotz jokatzeari, Udalaren gastuen eta diru-sarreraren politika eta Udalaren beraren antolamendua sistematikoki eta etengabe berrikustea, lehentasuna eman behar zaien eremuak edota kudeaketa hobetu daitezkeen eremuak zein diren ezagutzea, eta diru publikoak erabiltzerakoan zorrozki eta gardentasunez jokatzeari.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honen aurreko txostenari dagokionez –2012ko ekitaldiari buruzkoa da– kudeaketa-gomendio hauek bete diren edo betetzeko bidean dauden adieraziko dugu:

- *Udal planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen zehaztapenetara egokitzea.*

Oraindik betetzeko daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, aholku garrantzitsu hauek, besteak beste:

- *Aurrekontua onesteari buruz indarrean dauden legeetan ezarritako epeak betetzea.*
- *1993ko udal inbentarioa gaurkotzea, altak eta bajak kontrolatzeko sistema bat ezarriz.*

V. 2013ko KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA**

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako be- tebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeke dagoena
1. Langile-gastuak	6.187.900	359.100	6.547.000	6.196.719	94,65	6.100.807	98,45	95.912
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	2.693.300	141.200	2.834.500	2.548.961	89,93	2.058.662	80,76	490.299
3. Finantza-gastuak	161.000	-40.000	121.000	101.933	84,24	88.636	86,96	13.297
4. Transferentzia arruntak	361.800	61.400	423.200	380.901	90,00	220.174	57,80	160.727
6. Inbertsio errealak	-	1.021.400	1.021.400	889.780	87,11	601.517	67,60	288.263
7. Kapital-transferentziak	-	137.600	137.600	137.600	100,00	13.100	9,52	124.500
9. Finantza-pasiboak	569.000	0	569.000	567.165	99,68	567.165	100,00	0
Guztira	9.973.000	1.680.700	11.653.700	10.823.059	92,87	9.650.061	89,16	1.172.998

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	2.935.700	-	2.935.700	3.383.687	115,26	3.159.566	93,38	224.121
2. Zeharkako zergak	630.900	-	630.900	26.644	4,22	238.058	893,48	-211.414
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.701.700	-	1.701.700	1.436.352	84,41	1.202.855	83,74	233.497
4. Transferentzia arruntak	4.628.300	438.400	5.066.700	4.514.364	89,10	4.355.236	96,48	159.128
5. Ondare bidezko diru- sarrerak	366.200	-	366.200	546.982	149,37	334.704	61,19	212.278
6. Inbertsio errealak bes- terentzea	-	-	-	-	-	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	-	611.500	611.500	609.367	99,65	545.829	89,57	63.538
8. Finantza-aktiboak	-	88.000	88.000	-	-	-	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	542.800	542.800	337.200	62,12	337.200	100,00	0
Guztira	10.262.800	1.680.700	11.943.500	10.854.596	90,88	10.173.448	93,72	681.148

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	10.854.597	13.313.116
- Aitortutako betebeharrak	-10.823.058	-13.772.386
= Aurrekontu-emaiza	31.539	-459.270
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-	-58.433
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	58.433	445.558
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzaturako gastuak	87.664	59.654
= Aurrekontu-emaiza doitua	177.636	-12.492

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	1.113.878	1.578.220
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	943.833	1.291.722
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.144.665	1.327.995
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	14.957	26.570
+ Ordainketen itzulketak	4	260
- Bilketa zaileko eskubideak	-979.537	-895.139
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-10.044	-173.188
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.811.078	1.837.487
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.172.740	1.494.179
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	32.180	32.180
+ Diru-sarreraren itzulketak	279.354	16.670
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	326.974	294.558
- Aplikatzeko dauden gastuak	-171	-100
+ Diruzaintzako funts likidoak	706.463	409.931
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	-	-
Diruzaintza-gerakina, guztira	9.262	150.665
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	-	58.433
Diruzaintza-gerakina, atxikitako gastuak direla-eta	-	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	9.262	92.232

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2013	2012
A Ibilgetua	44.985.456	40.843.937
1 Ibilgetu materiala	40.206.793	37.427.465
2 Ibilgetu ez-materiala	3.022.802	1.674.506
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	-	-
4 Herri-ondasunak	1.752.500	1.738.605
5 Finantza-ibilgetua	3.362	3.362
C Zirkulatzaila	2.852.174	3.108.890
7 Izakinak	-	-
8 Zordunak	2.110.701	2.646.898
9 Finantza-kontuak	741.473	461.991
Aktiboa, guztira	47.837.630	43.952.828

Pasiboa

Deskribapena	2013	2012
A Funts berekiak	40.878.072	36.490.965
1 Ondarea eta erreserbak	12.285.229	9.267.544
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	1.454.445	645.127
3 Kapitaleko diru-laguntzak	27.138.398	26.578.294
C Epe luzeko hartzekodunak	5.216.306	5.446.271
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	5.216.306	5.446.271
D Epe laburreko hartzekodunak	1.743.252	2.015.592
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.733.208	1.842.404
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	10.044	173.188
Pasiboa, guztira	47.837.630	43.952.828

V.5 GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Amaierako erosketak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	660.245	822.526
61 Langile-gastuak	5.345.312	5.182.656	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	1.257.894	947.657
62 Finantza-gastuak	101.933	145.629	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.695.132	2.912.648
63 Tributuak	-	-	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	571.396	567.992
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	2.535.496	2.483.234			
65 Gizarte prestazioak	864.871	884.590	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	4.514.364	4.543.324
67 Transferentzia arruntak	380.901	332.720	77 Kapitalaren gaineko zergak	143.803	155.328
68 Kapital-transferentziak	88.337	6.000	78 Bestelako diru-sarrerak	65.196	75.660
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	-	314.166	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	951.809	-
Ustiapen-mozkina	1.542.989	676.140	Ustiatzeagatiko galerak	-	-
Guztira	10.859.839	10.025.135	Guztira	10.859.839	10.025.135

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	1.542.989	676.140
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	-	-	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Aldak. Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharrak (saldo zorduna)	88.544	31.013	84 Aldak. Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharrak (saldo hartzekoduna)	-	-
89 Etekin garbia, guztira	1.454.445	645.127	89 Galera garbia, guztira	-	-
Guztira	1.542.989	676.140	Guztira	1.542.989	676.140

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko ondorio, iruzkin eta aholku nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2013ko aurrekontua ez da onetsi. Hori dela eta, Udalak ekitaldi horretan aurrekontu luza-tuarekin jardun du.
- Kontu orokorrak eranskin gisa biltzen ditu Udalaren erabateko partaidetza duen sozieta-tearen finantza-egoerak, bai eta egoera-orri bateratu batzuk ere, nola baita Udalaren eta CDTSA-ren egoera-balantze bateratua, berari buruzko azalpen-ohar batzuekin.
- Gaur egungo egoera ekonomikoan, aurrekontuak ahalik eta egokien planifikatzeko, ahalik eta zehatzen ezagutu behar da, gure iritzian, udal funtzionarioen montepioko pentsio-sistematik heldu diren betebeharren gaur egungo balioa. Jakin beharra dago, nolahi ere, montepio hori iraungitzen ari dela, ez delako bertan sartzen lanean diharduen langile berririk.
- Ez da ikusi 2013ko ekitaldikoak izan eta 2014an kontabilizatutako kopuru handiko faktura-rik.
- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, 2013ko abenduaren 31n zegoen bezala, on-doko taula honetan agertzen dena da (eurotan):

Ekitaldia	Amortizazioa	%	Metatutakoa (%)
2014	546.272	10,5	10,5
2015	429.353	8,2	18,7
2016	429.353	8,2	26,9
2017	429.353	8,2	35,2
2018-2022	2.160.746	41,5	76,6
2023-2032	1.221.230	23,4	100,0
Guztira	5.216.307	100,0	100,0

- Udalak aurkeztutako oroitidazkiak ingurumena babestu eta hobetzeko eta klima-aldaketa samurtzeko edota horretara egokitzeko neurriei buruzko atal bat erantsi du.
- Karitatearen Ama Birjinaren ospitaleak, zeina entitate pribatu gisa definituta baitago, 140.000 euroko mailegu bat jaso du, 10 urtetan ordaintzekoa, Udalaren "comfort letters"¹ batekin bermatua. Mailegu horren zor bizia 117.833 eurokoa zen 2013ko abenduaren 31n.
- Udalak zenbait prozedura judizialetan dago sartuta; horietan, beren zenbateko ekonomi-koa dela-eta, hauek dira aipagarrienak:
 - a) 12-4672 gora jotzeko errekurtsioa, zeinaren bidez Udalari 54.486 euroko kalte-ordain bat erreklamatzeko baitzaio. Kalte-ordaina 2014an ordaindu da.
 - b) 311/2012 prozedura arrunta (administrazioarekiko auzi-errekurtsioa), EIOZaren behin betiko likidazioa dela eta. 217.000 euro egiten du. Azkenik, 2013ko ekitaldian, partzialki baietsi da liki-dazioa, eta Udala 173.951 euro ordaintzera behartu da.

Hona gomendatzen duguna:

¹ Enpresa-taldeetan erabili ohi den finantza-tresna bat da, zeinaren bidez sozietate nagusiak edo gehiengoak duen bazkideak sozietate filial bati kreditu-entitateen aurrean finantza-babesa emateko –eta, kasua bada, be-har diren finantza-betebeharrak bere gain hartzeko– konpromisoa hartzen baitu lehendik dagoen edo egitekoa den kontratu batengatik –arruntena kreditu edo mailegu bat izaten da–. Beste berme-elementu bat da, finan-tza-merkatuak eskatu ohi dituenen (aktiboak, prenda, abalak...) osagarri.

- *Udalaren aurrekontuak indarrean dagoen legedian ezarritako epeetan onestea.*
- *Udal funtzionarioen montepiotik eratorritako betebeharrak aktuarialak zenbatatea eta haiek balantzean erregistratzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratua 6,2 milioi eurokoa da; hau da, 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 57 eta gastu arrunten ehuneko 67.

2012ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu horrek ehuneko 2,37 egin du gora, ondoko taulan erakusten den bezala (eurotan):

Langile-gastuak	2013	2012	2013-2012 aldea (%)
Goi-karguak	92.798	93.953	-1,23
Funtzionarioak	1.498.108	1.553.957	-3,59
Lan-kontratadun finkoak	755.899	761.987	-0,80
Aldi baterako lan-kontratadunak	1.704.674	1.496.701	13,90
Gizarte-zamak	2.145.240	2.146.671	-0,07
1. kapitulua, guztira	6.196.719	6.053.269	2,37

Udalaren Osoko Bilkurak 2011ko plantilla organikoa onetsi zuen. 184 lanpostu dauzka. 2012ko eta 2013ko ekitaldietan, ez da ekitaldi horiei dagokien plantilla organikoa onetsi, baina aurreko urtekoaren aldaketa batzuk egin dira. 2013ko abenduaren 31n, 175 lanpostu daude guztira.

2013ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 189 pertsonak egiten zuten lan. Hona xehetasunak:

Langileak	Udala	Musika eskola	Kultur Patronatua	Kirol Patronatua	Guztira
Kanpoko-izendapen librea	1	-	-	-	1
Funtzionarioak	32	3	3	1	39
Lan-kontratadun finkoak	16	6	2	-	24
Aldi baterako lan-kontratadunak	106	8	-	11	125
Guztira	155	17	5	12	189

Aldi baterako langileen barruan, gizarte enplegu babestua duten 2 langile daude, lantegi-eskolako 22 langile eta gizarteratze errenta jasotzen duten 30 langile daude.

2012ko ekitaldiarekin alderatuta, bostetan jaitsi da enplegatu-kopurua.

Udalaren berriazko langileak –156– honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Administrazio orokorra	13
Udaltzaingoa	21
Hirigintza	5
Obretako brigada	9
Parkeak eta lorategiak	1
Arlo ekonomikoa	6
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	3
Etxez etxeko laguntza	13
Gazteria	4
Haur Eskola	14
Gainerako zerbitzuak	12
Babestutako enplegu soziala	2
Tailer-eskola	22
Gizarteratze errenta	30
Guztira	155

Langile-gastuen lagin bat azertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla. 2013ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

2013an pentsioren bat jasotzen duten Udaleko Montepioko langile kopurua 45 pertsonako da, eta 0,75 milioi euroko gastu garbia izan da kontzeptu honetan.

Montepioari dagokionez, adierazi beharra dago 2013ko abenduaren 31n 45 pentsiodun zeudela, honako banaketarekin: 20k erretiroko pentsioa jasotzen zuten; 19k alarguntasun-pentsioa, eta 6k zurtasun-pentsioa. Jardunean daudenak 17 pertsona dira.

Montepioaren tamaina dela eta hartan funtzionario berriak sartzen ez direnez, zerbitzu ekonomikoek ez dute jotzen beharrezkoa denik azterlan aktuarialik egitea.

Gomendatzen dugu plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko.

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzu bateratuetan egindako gastuak 2,5 milioi eurotaraino iritsi dira 2013ko ekitaldian. Kopuru horretatik, Udalarari 2,2 milioi dagozkio, Kultura Patronatuari 275.797 euro, Kirol Patronatuari 72.391 euro, eta Musika Eskolari 28.214 euro.

Gastuak ekitaldiko gastu guztien ehuneko 23,6 hartzen du, eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 27,7. 2012ko ekitaldiarekin alderatuta, guztira ehuneko 2,07 egin dute gora.

2013ko ekitaldian esleitutako honako kontratazio-espeditenteak egiaztatu ditugu (BEZa barne):

	Kontratu mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa	Betetako zenbatekoa 2013
Zezenketak (hiru urte)	Laguntza	Irekita eskaintza onenarentzat	135.000	4	109.500	36.500
Tributuen azterketa	Laguntza	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	80.000	3	80.000	80.000

Espediente hauei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren ondorioz, behar diren fakturekin justifikatuta daudela eta egokiro kontabilizatu direla egiaztatu da, baina hobetzeko moduko alderdi hauek ere ikusi dira:

- Zerbitzu batzuek 2013an izan duten gastu-bolumenari eutsiz gero, beharrezkoa izanzen litzateke zenbatekoari egokitutako kontratazio-prozedura bat.

- Ganbera honek behin eta berriro adierazi duen bezala, kale-argiteria berrikusteko eta mantentzeko zerbitzua kontratatuzko prozedura egin gabe dago oraindik; zerbitzu horren gastua 46.493 eurokoa izan da 2013an.

Hona gomendatzen duguna:

- *Kontratazio espeditenteak izapidetzea kontraturako kalkulatu den zenbatekoaren arabera.*
- *Argiteria publikoa berrikusteko eta mantentzeko zerbitzurako behar den kontratazio-prozedura egitea.*

VI.4. INBERTSIOAK

2013ko ekitaldirako aurrekontu bateratuan aurreikusitako inbertsioetatik –milioi bat euro– ehuneko 87 bete da –0,9 milioi euro–. Gastu horrek ekitaldian aitortutako betebeharren guttizkoaren ehuneko 8 hartzen du. Ia inbertsio guztiak Udalak egin ditu.

2012ko ekitaldiarekin alderatuta, inbertsioetan egindako gastua ehuneko 78,8 gutxitu da.

Inbertsioen kapituluko gastu-lagin bat eta 2013an esleitutako kontratazio-espeditente hauek aztertu dira (BEZa barne).

Deskribapena	Kontratu mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituz-	Esleipenaren zenbatekoa	2013an betetako zenbate-
Zenbait bide konpontzea	Obrak	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	70.000	2	70.000	70.000
Igerilekuak	Obrak	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	216.335	1	216.335	216.335

Egindako azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia –alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espeditenteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla.

VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2013ko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuen zenbatekoa 10,9 milioikoa izan da; horietatik, Udalari 10,6 milioi dagozkio, Musika Eskolari 212.878 euro, eta Kultura eta Kirol Patronatuei, 37.311 eta 18.993 euro, hurrenez hurren.

Ehuneko 72 eragiketa arrunten bidezko diru-sarrerak dira, eta gainerakoa kapital-eragiketen bidezkoak.

Eragiketa arrunten artean tributu bidezko diru-sarrerak -4,8 milioi euro– eta transferentzia arruntak -4,5 milioi euro– nabarmentzen dira. Kapitale-eragiketetan, jasotako kapital-transferentzien kapituluak -0,6 milioi 2013an; 2012an, berriz, 2,4 milioi izan ziren– espazio eszeniko berri bat eraikitzeko obretarako diru-laguntzak jasotzen dira (42.000 euro 2013an; 2012an, berriz, 1,9 euro izan ziren).

Diru-sareren aurrekontuaren gauzate maila ehuneko 91koa izan da. Nabarmentzekoa da 2. kapituluaren –zeharkako zergak– betetze maila apala (ehuneko 4,22koa).

2012ko ekitaldiaren aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 18,47 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sareren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak, 2013	Aitortutako eskubide garbiak, 2012	2013/2012 aldea (%)
1. Zuzeneko zergak	3.383.687	3.104.311	9,00
2. Zeharkako zergak	26.644	531.658	-94,99
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.436.352	1.425.168	0,78
4. Transferentzia arruntak	4.514.364	4.543.324	-0,64
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	546.982	415.252	31,72
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	9.908.029	10.019.713	-1,11
6. Inbertsio errealeen besterentzea	0	176.272	-100,00
7. Kapital-transferentziak	609.367	2.418.531	-74,80
9. Finantza-pasiboak	337.200	698.600	-51,73
Kapitaleko eta finantzaketa bidezko diru-sarrerak (6tik 9ra)	946.567	3.293.403	-71,26
Diru-sarrerak, guztira	10.854.596	13.313.116	-18,47

Diru-sarrerren urritze hori azaltzen dute, funtsean, kapital-transferentziengatik diru-sarrerak – ehuneko 74,8– eta zeharkako diru-sarrerak –ehuneko 95– izan duten jaitsiera nabarmena.

2013an 0,337 milioi euroko epe luzerako mailegu bat hartu zen.

Ondorengo taulan, udal zerga bakoitzaren arabera aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da (eurotan):

Zergak	Aitortutako eskubideak (2013)	Aitortutako eskubideak (2012)	2013/2012 aldea (%)
Lurraren kontribuzioa	2.037.016	1.950.342	4,44
Ibilgailuak	571.396	567.992	0,60
Lurren balio-gehikuntza	143.803	155.329	-7,42
JEZa	631.472	430.649	46,63
EIOZa	26.644	531.657	-94,99
Guztira	3.410.331	3.635.969	-6,21

Oro har, zergen bidezko diru-sarrerak ehuneko 6,2 egin dute behera; jaitsiera hori heldu da, funtsean, JEZaren bidezko diru-sarrerak gora egin izatetik, azken hiru ekitalditako zerga-ikuskapena dela-eta –174.448 eurokoa izan da– eta EIOZarengatik diru-sarreraren gutxizetik. Nabarmentzekoa da zeharkako zergengatik (eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga) aitortutako eskubideen zenbatekoa 303.882 eurokoa dela, baina aurreko ekitaldiko 277.238 euroko diru-sarreraren itzulketa kontabilizatu dela, azkenean gauzatu ez ziren eraikuntzei dagozkien itzulketa-betebeharren ondorioz.

Udalak aplikatutako zerga-tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Zerga	2/1995 Foru Legea	Udala
Lurraren kontribuzioa	0,10 - 0,50	0,199
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	1 - 1,4	1,32 - 1,40
Lurren balio igoeraren gaineko zerga.		
Gaurkotze-koefizientea	2,1-3,6	3,4-3,6
Zerga-tasa	8-20	9
		3,1
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	2 - 5	(aurrekontua 2.500 € baino txikiagoa bada) 5
		(aurrekontua 2.500 € baino handiagoa bada)

Tasa horiek aurreko urtean aplikatutakoen berdin-berdinak dira, lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren kasua kenduta; izan ere, % 20tik % 9ra jaitsi da balorazio-ponentziaren aldaketaren ondorioz.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

VI.6. INBENTARIOA/IBILGETU MATERIALA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1993an egin zen, eta ez da gaurkotu, nahiz eta udal zerbitzu ezberdinei atxikiriko ondasunen zerrenda gaurkotu bat badagoen, kostu-azterlanerako egindakoa.

Udalaren ondasunen eskriturazte- eta erregistratze-prozesua burutzeko dago.

Udalak, 2009ko abenduaren 1ean, eskritura publikoan gauzatu zuen "Hospital de Nuestra Señora de la Caridad" entitateari egoitza berria eraikitze dohainik egindako ondare-ondasuna den hiri-lursailaren lagapena, 862.963 euroko balioa duena. Lagapen horren baldintza da hogeita hamar urtez zahar-etxearentzat erabili behar dela, eta ez da egoitza hori hirugarrenei lagatzeko eta errentan emateko baimenik ematen. Orain arte lagapen-baldintzak betetzen ari dira.

Hona gomendatzen duguna:

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotu eta onestea.*
- *Udalaren ondasunak eskrituratu eta erregistratzeko prozesua burutzea, haien egoera juridikoa eta zertarako erabiltzen diren adieraziz.*
- *Inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, haren etengabeko gaurkotzea eta hark kontabilitatean ibilgetuarekin lotura izatea bermatu eta bideratzeko.*

VI.7. HIRIGINTZA

Tafallako Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra ize-neko organo baten bitartez. 2013ko ekitaldiko plantilla organikoan adierazten denaren arabera, bertako jarduerak egiteko izendatutako langileak honako hauek dira: bi arkitekto, arkitekto tekniko bat, administrari bat eta administrari laguntzaile bat.

Horrez gainera, 2013ko ekitaldian, Udalak 7.731 euroko betebeharrak batzuk aitortu ditu, kanpoko hirigintza-aholkularitzagatik.

Tafallako Udalaren Antolamendu Plana 1994an onetsi zen. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Udala hasia da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko tramiteak egiten, 2011ko maiatzaren 13ko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin sinatzeko hitzarmena onartzeko hartutako erabakiaren bidez.

Udalaren lurzoru-ondarea ez da erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita kudeatzen. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loturaduna eta bereizia izatea, eta era berean, ez da sortu ondasun horien sarreren eta irteeraren berri ematen duen erregistrorik.

Udalak aurkeztutako oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzatutako hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Hirigintza-jardueren lagin bat aztertu dugu, eta egiaztatu dugunaren arabera, behar bezala izapidetu dira, oro har.

Hona gomendatzen duguna:

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*
- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerrako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

VI.8. "CIUDAD DEPORTIVA TAFALLA, S.A." SOZIETATEA

"Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." pertsona bakarreko sozietatea da, eta Tafallako Udala du akziodun bakarra. 2001ean eratu zen, 300.000 euroko kapital sozialarekin. Kapital sozial horretan, bost kapital-gehikuntza egin dira, 13,9 milioikoak guztira.

2013ko ekitaldiko urteko kontuak txosten honi erantsiriko oroitidazkian sartuta daude eta Udaleko kontu-hartzaileak egin zuen horien finantza-kontrolerako berrikusketa.

Ekitaldiaren emaitzak, 2013ko abenduaren 31n, negatiboa izaten jarraitzen du (-282.333 euro). Honako taulan xehakatu dugu:

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Ekitaldiko emaitzak	-323.016	-268.079	-215.659	-251.277	-288.328	-262.869	-282.333
lbilgetuaren amortizazioa	356.064	330.615	333.308	333.951	334.282	334.455	497.285
Emaitzak amortizaziorik gabe	33.048	62.536	117.649	82.674	45.954	71.586	214.952
Kapitaleko diru-laguntza, emaitzari aplikatua	12.909	51.297	51.297	51.297	51.297	51.297	213.253
Amortizaziorik gabe eta kapitaleko diru-laguntza aplikatu gabe ordaundutakoa	20.139	11.239	66.352	31.377	-5.343	20.289	1.699

2013ko eta 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantzeek eta galeren eta irabazien kontuek – urteko kontuetan sarturik daude– honako saldoak erakusten dituzte:

Egoera-balantzea

Aktiboa	2013	2012	Pasiboa	2013	2012
Aktibo ez-korrontea	18.586.043	12.917.696	Ondare garbia	18.706.167	12.965.190
Lurrak eta ondasun naturalak	2.630.043	-			
Eraikinak	15.333.899	15.333.899	Kapitala	13.917.000	13.917.000
Lanabesak	1.175	1.175	Borondatezko erreserbak	-57.152	-57.153
Bestelako instalazioak	3.805.025	271.788	Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboa	-2.448.552	-2.185.683
Altzariak	8.499	7.004	Ekitaldiko galerak	-282.333	-262.869
Amortizazio metatua	-3.193.455	-2.696.170	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	7.577.204	1.553.895
Aktibo korrontea	128.083	52.312	Pasibo ez-arrunta	-	-
Zordunak	7.243	352	Pasibo arrunta	7.959	4.818
Epe laburreko inbertsio finantzarioak	111.000	45.000	Epe laburreko zorrak	-	-
Eskudirua	9.840	6.960	Merkataritzako hartzekodunak	7.959	4.818
Aktiboa, guztira	18.714.126	12.970.008	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	18.714.126	12.970.008

Galeren eta irabazien kontua

Zor	2013	2012	Hartzeko	2013	2012
Gastuak	540.731	352.540	Diru-sarrerak	258.398	89.671
Bestelako ustiatze-gastuak	43.446	18.085	Negozio-zifraren zenbateko garbia	44.016	37.990
Konponketak eta kontserbazioa	15.911	-	Salgaien salmenta	22.485	21.894
Zerbitzu profesional independenteak	6.626	6.491	Bukatutako produktuen salmentak	21.531	16.096
Banku zerbitzuak eta antzekoak	36	54	Emandako zerbitzuak	-	-
Hornidurak	8.769	813	Bestelako ustiatzeengatikoko diru-sarrerak	145	-
Bestelako zerbitzuak	12.104	10.727	Diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak	145	-
Aparteko gastuak	-	-	Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena	213.254	51.296
Ibilgetuaren amortizazioa	497.285	334.455	Diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak, ekitaldiko emaitzari transferitutakoak	213.254	51.296
Ibilgetu materialaren amortizazioa	497.285	334.455	Ustiatzeagatikoko galerak	283.316	263.253
Ustiatze-etekinak	-	-	Finantza diru-sarrerak	983	384
Finantza-gastuak	-	-	Finantza bidezko bestelako diru-sarrerak	983	384
Taldeko enpresen zorrenatikiko interesak	-	-	Emaitza finantzarioak (galerak)	-	-
Emaitza finantzarioak (etekinak)	983	384	Emaitza, zergak baino lehen (galerak)	282.333	262.869
			Ekitaldiko emaitza (galerak)	282.333	262.869

Aurreko datuetatik ondorioztatzen denez, ekitaldiko emaitza antzekoa da bi urteetan eta balantzeko aktiboaren igoera bat gertatu da, Udaleko Osoko Bilkurak onetsitako lurren eta instalazioen atxikipenen ondorioz -2,6 eta 3,5 milioi, hurrenez hurren-.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko urriaren 15ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

